

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko uztaillaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Andoni Torres, Daniel Resano eta Mikel Okiñena artista gazteen lanak paratu dituzte

Gustavo de Maeztun • 2

547. zenbakia • Gaurkoa da EGUNKARIAk kaleratzen duen azken Nafarkaria • 7

• Josu Azkona



Erraldoien barrenean

Asteburu honetan, herriko besta andana izanen da Nafarroan. Horietako anitzetan, erraldoiak ariko dira dantzari. Erraldoiak herrietako jaietako parte garrantzitsu baitira. Baina ez da ahanzi behar erraldoiak ez direla berez mugitzen; ezin ahanzten ahal da pertsona bat behar dela barrenean erraldoia leku batetik bestera mugitzeko. Nonbait, hori ahanzia zuten Altsasun, eta, aurtengo jaietan, ez da erraldoirik izanen, erraldoia mugitzeko nahiko lagun ez baitute lortu.



Iruñea • Alde Zaharreko lanak luzatuko dira

Iruñea
•
Cultur programa abian da

Iruñeko Alde Zaharreko karririk urbanizatzen eta oinezkoentzako egokitzen ari dira.

Lanak mantso doaz eta gehiago atzeratu dira azkenaldian. Antza denez, bizilagunen sufrimenduak luze joko du.

Navarrerian indusketa arkeologikoak egitea agindu du Principe de Viana erakundeak



Navarrería kalea, Iruñean. Bertan egin beharreko lanak uste baino gehiago luzatuko dira.

● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

A Iruñeko Alde Zaharreko urbanizatzeko eta oinezkoentzako egokitze lanak atzeratu dira berriz. Egun, lanen bigarren fasean ari dira, Caldereria, Xabier eta Tejeria karrikan. Lan hauek bukatzeko epea azaroaren 14 arte luzatu du berriz Iruñeko Udalak. Baina, horretaz gainera, Navarrerian burgoan egin behar dituzten lanen hasiera urtebete atzeratu dute. Izan ere, Principe de Viana erakundeak agindu du, lanak hasi aurretik, indusketa arkeologikoa egin behar dela, eta ez aurreikusia zegoen kata arkeologikoa.

Antza denez, Gazteluko plazako lanetan gertaturikoak eragina izan du Principe de Viana erakundeak harturiko erabakian. Kata arkeologikoa egitea pentsatua zuen Udalak, eta, horretarako, lau hilabete beharko zituztela kalkulatu zuten. Baina Principe de Vianak azterketa arkeologikoa sakonagoa nahi du eta indusketa egitea agindu du. Indusketek

lau hilabete baino gehiago irauten dute.

Gogoratzekoa da Navarrerian burgoak orain betetzen duen tokian, behinola, erromatarren foroa eta cardo eta decumano kale nagusiak izan omen zirela. Urbanizatzeko lanen gaineko proiektuan Trama arkeologia taldeak idatzi zuenez, «hondar arkeologikoa egon daitezke Curia eta Navarrerian karrikan, katedralaren aitzinaldean, eta Navarrerian, San Jose eta Santa Zezilia plazetan. Sustratoak erromatarren aurrekoak izan daitezke. Eremu hau Iruñeko hi-

riaren balizko iturburu da, baina hiri erromatarren balizko erdialdea ere».

1996 urtetik lanean

Alde Zaharreko karrikan urbanizatzeko eta oinezkoentzako egokitze lanen lehen fasea 1996 eta 1999 urteen artean egin zuten Udaletxe plazan, Zapaterian, Txapitelan, Comediasen, Pozoblancon eta kale Nagusian. Legegintzaldi eta Gobernu talde aldaketak lanak gelditu zituen.

Bigarren fasean, Caldereria, San Agustin, Xabier eta Tejeria

kaleetan ibili dira lanean. Udalen aurreikuspenen arabera, 2004 urtean bukatuko dituzte lanak. Baina, oraindik Navarrerian ingurua falta zaie. Eta errandenez, hauek ere atzeratuko dira indusketa arkeologikoa egin behar dituztelako.

Lanen hirugarren fasean, Compañía, Merced eta Dormitalleria karrikan ibiliko dira. Eta laugarrenean, San Nikolas burgoan. Alde Zaharreko bizilagunek, beraz, asko dute oraindik jasateko.

→ Asier Azpilikueta

Iragan asteartean, Xabier Santxotena eta Javier Iriarte artisten erakusketa bana inauguratu zuten, eta horrekin abiatu zen Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen Cultur programa. Santxotenen eskulturak Bertizko parke naturaleko jaurretan izanen dira ikusgai, abuztua bukatu arte. Javier Iriarteren margolanak, berriz, Erriberriko errege jaurretan bisitatzen ahal dira abuztuaren 29a arte.

Herenegun, beste bi erakusketa zabaldu zituzten: Mikel Okiñena eskultorearena Lekunberriko Mitxasenea kultur etxean, eta Jesus Montes margolariarena Elizondoko Arizkunenea kultur etxean.


Aste honetako inaugurazioekin bukatzeko, ostegunean, Fermin Alviraren margolanen erakusketa zabaldu zuten Izabako museo etnografikoan. Eta, azkenik, Alicia Irigoien margolariaren lanen erakusketa abuztuaren zabalduko dute Vianako kultur etxean. Bi hauek ere iraila arte egonen dira zabalik.

Santxotena, Iriarte, Okiñena, Montes, Alvira eta Irigoien artisten erakusketak *Cultur 2002: Nafarroa, turismoa eta kultura* programaren baitan antolatu ditu Nafarroako Gobernuak. Nafarroako turismo lekuetara joaten diren bisitariak nahiz bertakoei udan ekitaldiak eskaintzea da Cultur-en helburu, baita Nafarroako egileen lanak ezagutaraztea ere. Musikaren, dantzaren, eskulangintzaren, folkloreak, herri kirolen eta arte plastikoaren gaineko 75 ekitaldik osatzen dute aurtengo Cultur-a.

→ Asier Azpilikueta

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Susmorik bazen lehenagotik, baina ez genekien noiz botako zuen azken hatsa. «Aizu, idazteko zure txanda da, azkenekoa izanen dena», esan dit Asierrek tristura puntu batez. Horiek horrela, gaur, ostirala, uztailearen 26a, behin Leila-Perejil uharteko ahuntzak berriz ere Espainiako saroirak itzuli direnean, parada dugu errateko, isil-isilik bada ere, ez garelako NAFARKARIA irakurri batez aguretuko. Eta hori ez da posible izanen (agian, agure izatera iristeara bezala), gaurko zenbaki hau, Santiago egunaren ondoren kaleratua, NAFARKARIAren sail luze honen azkenekoa delako. Orduan, bada, EGUNKARIAren abaroen sorturiko letra-altxor honek bereak egin du honenbestez, arazo ekonomikoak tarteko.

UPNko Gobernua izan da, lege-trikimailuak erabiliz, diru-iturriaren kanila itxi duena. Gogotik itxi ere, seguruenik. Eta, noski, ezdeus bihurturik, laguntza ofizialik gabe, eta hura ez jasotzearen aitzakiaz, gehigarriak (egunkari ho-

nek berak) Nafarroan dituen irakurleok eskasak izateagatik edo, pumbal!, hemen amaitzen da heldu den abenduaren hamaika urte egiten zuten paperezko kreatura honen ibilbidea.

Ez, ez gara gauza izan (ez ote zen beste finantzabiderik dirua eskuratzeko?) gure indarrekin bakarrik NAFARKARIA bere horretan iraun zezan. Garenak gara eta kito, dio tautologiak. Hizkuntzaren aldeko zereginetan oinez edo korrika ibiliz, milaka bilduko gara bazterretan; NAFARKARIA buruz eta geldirik irakurtzeko, ordea, badirudi jende guti bildu dela xede horren ingurura.

Garbi dago, euskara geu bagara, ez dirudi ez hizkuntza bera ezta gu geu ere bideragarriak garenik: ekimen honen desagerpena, lekuko. Asko jota, desorekan mugit-

zen den jende mordo bat baino ez. Eta hori, noski, ez da ona.

Asmatuz eta huts eginez (betiere idazteko nire txandari irmo eutsiz) ibili naiz hamar urte hauetan NAFARKARIAri lotua; eta barrerean arrasto mikatza uzten duen galeratzen hartzen dut haren desagerpena. Poza ere sentitzen dut, baina. Izan ere, gaitasuna eta ahalmena ongi erakutsi baitute egileek, prentsa-paper hauek hamar urte pasatxo bizirik iraun duten bitarte luze honetan etsi gabe jardun izanagatik. Eta hori, zer demontre, zoriontzekoa da, bai horixe!

Datorren ostiralean, beraz, ez da NAFARKARIA gurekin izanen, ez eta hurrengoetan ere. Susmoa dut, aurrerantzean, NAFARKARIArik gabe, zozoago topatuko dugula ostiraleko gure egunkaria.

Lizarra ●

Gazte sormenaren aterpea


Artista Gazteak deialdiaren hiru irabazleen lanak Gustavo de Maeztu museoan ikus daitezke

NAFARROAKO GOBERNUAREN sormenerako laguntzak deialdiaren azken irabazleak bildu dira bertze behin Lizarran. Urtez urte, Vianako Printzea Erakundeak gazteen lanari babesa emateko bekak antolatzen ditu. Gazteek hiru mila euro eta urtebete izan dute aurkeztutako proiektua gauzatzeko, eta orain hamabi hilabetetan zehar landu duten lana ikusgai dago Gustavo de Maeztu museoan. 2001-2002 deialdiko hiru irabazleek teknika erabat ezberdina erabili dute haien sormena islatzeko. Ildo horretan, Andoni Torresek argazkilaritzaren bidea hautatu du; Daniel Resanok, berriz, instalakuntzaz baliatu da hausnarketa egiteko; eta, azkenik, Mikel Okiñenak eskulturaren arloa jorratu du.

Museoaren aurreneko aretoan Andoni Torresen zuri-beltzeko argazki kuttunak zintzilikatu dituzte. Tartean, Mikel Okiñenaren hainbat eskultura ere ikus daitezke, biluzik dauden berunezko gorputzak, hain zuzen ere. Bigarren aretoan ere Okiñenaren bertze eskultura bat paratu dute. Kasu honetan egurrez landutakoa. Beheko solairuan, aldiz, Daniel Resanoren instalakuntzak daude, ikusleak artista-oren obrarekin bat egiteko aukera du bertan; izan ere, gazteak partekatze guneak sortu ditu. *Nafarroako Gobernuaren sormenerako laguntzak* erakusketa uztailearen 5ean zabaldu zuten, eta abuztuaren 18a bitartean ikus daitezke betiko ordutegian.

Hiru artista, hiru bide

Arestian erran bezala, artista bakoitzak bere bidea landu du bere sormena islatzeko orduan. Andoni Torresek zuri-beltzeko 40 argazki kuttun paratu ditu erakusketan. Eguzki izpiek lur bustietan sortzen dituen irudiak, euri-tanta baten ibilbidea kristalean, zuhaitz adarren itzalak bidezidor batean, edota harri zuriez populatutako ibarra bildu ditu bere argazki makinarekin. «Beteramaten dut gainean argazki makina —dio artistak—; batzuetan, argazkiak bilatzera joaten naizenean, ez ditut aurkitzen; alta, haien bila ari ez naize-



Andoni Torres, Daniel Resano (eskuinekoa) eta Mikel Okiñena (goikoa) artista gazteen lanak paratu dituzte Gustavo de Maeztu museoan.

● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Andoni Torres, Daniel Resano eta Mikel Okiñenaren lanak zintzilikatu dituzte Gustavo de Maeztu museoan abuztuaren 18a bitartean. Nafarroako Gobernuak artista gazteak laguntzeko antolatzen duen lehiaketaren irabazleak izan dira hirurak.


nean suertatu egiten zaizkit, bat-batean». Gertuen dauden gauza txikiak islatzen ditu argazkilarik gazteak, gauza xumeak, eta argazkien tamaina ere txikia da, gerturatu egin behar da. Iradokizunak dira haren irudiak, poema txit hunkigarriak.

Mikel Okiñenaren eskulturak gizakiaren gorputza du oinarri. Egurra da irudiak gauzatzeko euskarria, eta, gero, gehiengotan, berunez estaltzen ditu. Horrela, joko batean biltzen ditu kontrajarriak dauden kontzeptuak: zarpaila eta zehatza, gizar-tearen anabasaren isla, alegia. Ironiarekin ere espresatzen da Okiñena, bi oilo lapurtzeagatik kartzelaratu duten gizonaz baliatuz, adibidez.

Daniel Resano gazteak, berriz, instalakuntza jorratu du azken lan honetan. Bertzela ere margolanak eta eskulturak egiten ditu; baina, oraingoan, lehiaketaren diru laguntzaz baliatu da inoiz aurretik jorratu ez, eta buruan zuen hausnarketa gauzatu ahal izateko. «Ikuslearen jarrera aztertu nahi izan dut, eta, horretarako, haiekin partekatze guneak sortu nahi izan ditut», azaldu zuen artistak. Ildo horretan, punta-puntako teknologiaren erabileraz baliatu da Resano.

Arte garaikidearen isla

Gustavo de Maeztu museoan paratu diren hiru artisten lanak arte garaikidearen isla dira, Pe-



dro Salaberri margolari eta epaimahaiko kidearen errantetan. «Uste dut oso maila ona dutela artista gazteek; interesgarriak dira oso egiten dituzten lanak, eta ikusgai dagoen erakusketa horren lekuko argia da». Margolari nafarrak, alta, sormenerako bidea aukeratzeko duten gazteek ez dutela babes nahikorik salatu zuen. «Uste dut erakundeek ezer gutxi egiten dutela artista gazteak laguntzeko, eta ildo horretan aunitz egiteko badago ere, oso mugatuta gaude».

→ Kristina Berasain



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Hautsi da anphora

Zaila da idazteaz (idaztetik?) bizitztea, oso zaila. Nik suertea izan dut, bai horixe: Europan punta-puntako idazle bezala aitortua, ehunka sariren irabazlea, dozenaka omenaldi eta zilarrezko plakatoren protagonista, eta Barne sailleko ez-dakit-zein dominaren jabea naiz dagoeneko. Erregearekin solastatu naiz, Gobernuko lehen-dakariaren etxean txirrina joaz sar naiteke (nahi dudanean), eta dirua, ez dut esango erruz, baina irabazi dut. Poliki bizitzeko moduan, gauza handirik edo arranditsurik gabe, idazle xume baten moduan: Larraburu-Enea, lorategi bi, baso hektarea batzuk, zalditegia, auto bilduma txiki bat, bufanda zuria, pipa... eta lorezain, maiordomo eta txoferraren hiru paperak betetzen zituen langile bat.

Baina zaila da idazteaz bizitztea, modu xume honetan bada ere, eta azken hilabeteetan nire gestoreek gauzak korapilatu egin dituzte (edo nire kontuetan eskua sartu dute zuzenean) eta kontua da kreditu batzuk estaltzeko kreditu berriak ireki behar izan ditudala, eta azkenean zaldiak eta auto gehienak ere saldu behar izan ditut dirua diruarekin estaltzen baita, aizue. Eta, azkenean, Bexikulas bera deitu dut, eta hemendik aurrera berarekin ezin izango dudala kontatu esan diot, sosik gabe nagoela, sentitzen dudala. «Lasai, Nausi, moldatuko naiz» —esan dit berak—. Gero bere gelan desagertu da, eta sorbaldan bizkar zorroa zeramala agertu da, eta eskua luzatu dit eta nik hartu. «Hartu auto bat Bexikulas» —esan diot nik— «Aukeratu nahi duzuna, opari bat da, ez izan harroa!... Hartu krema koloreko Mercedes nahi izanez gero!». Berak, temati, ezetz. «Horrela etorri nintzen eta horrela alde egin nahi dut, Xabier». Xabier. Putzuan erortzen den arroaren antzera erori da «Xabier» hori!, adiskidetasun keinu hori! «Lorentzo Karlos...» —erantzun diot nik bere benetako izena erabiliaz ere— «...sentitzen dut, baina badakizu: zaila da idazteaz...». «Bizitztea... bai» —bukatu du berak esaldia, eta alde egin du— ●

Goliat, lehen erraldoia

PANPINA ERRALDOIAK HERRIETAKO KARRIKETATIK PASEATZEA EZ DA BAKARRIK Euskal Herriko ohitura. Europan, Asian eta Ameriketara zabalduta dagoen zerbitu da. Dokumentaturik dagoen lehen erraldoia Belgikako bat da, XV mendekoa. Eta garai bertsukoak da Kataluniako bat.

Nafarroari dagokionez, zera dio Premin de Iruñak: «1600 urteko Iruñeko kontu eta ordain-aginduetan, erraten da Juanes Larraizarrak, eta bere hiru lagunek, hiriko erraldoiak eraman zituztela Corpuseko eta San Fermingo prozesioetan; beraiekin batera zihoazten hiru juglare edo txuntxunero».

Arturo Campioni berriz dio, lehenago hasi zela erraldoien tradizioa Nafarroan. Don Garcia Almoravid bere eleberrian idatzi zuenez, 1276ko San Fermingo prozesioan, hiru erraldoi dantzatu zituzten: Peru Suziales, Mari Suziales eta Josef Luguari. Dena den, adituek ez diote Campionen aipamenari sinesgarritasun handirik ematen.

Bestalde, Tuterako erraldoiak 1614 urtean agertzen dira ageritan lehenbizikoz, Azpeitikoak, 1622an; eta Donostiakoak, 1660an. Eta 1657an, Iruñeko agintariek Francisco Azpillaga tolosarrarengana jo zuten zortzi erraldoi buru egin zitzaizkien.

Antza denez, XVI eta XVII mendeak erraldoien urrezko mendeak izan ziren. XVIIIan, berriz, debekuak etorri ziren. Kaltegarriena, 1780koa. Elizak presionatuta, Espainiako erregeak debekatu zuen erraldoiak edozein ekitaldi edo toki erlijiosotan egotea. Hori dela eta, erraldoi gehienak desagertu ziren. Iruñean, 1860 urtean agertu ziren berriz. Orduan egin zituen Tadeo Amorena iruindarrak egun ere badauden erraldoiak.

XX. mendean berreskuratu ziren erraldoiak leku gehienetan, eta konpartsa berri anitz sortu zen. Egunduan, 95 bat konpartsa daude Nafarroan. Ugaritze eta sendotze horretan, berebiziko garrantzia izan dute erraldoi kontzentrazioek eta Nafarroako zenbait taldek Kataluniakoekin dituzten harremanak.



● LANDER F. ARROIABE

NAFARROAKO UDAKO JAI EGUTEGIAN, HIRU egun garrantzitsu daude: uztailaren 25a, abuztuaren 15a eta irailaren 8a. Hiru egun horien inguruan pilatzen dira herrietako besta gehienak. Asteburu honetan, lehen jai zurrumbiloan murgildurik egonen gara. Eta zurrumbilo horretan gehien nabarmenduko direnak, beti bezala, erraldoiak izanen dira.

Nafarroan 95 erraldoi konpartsa inguru daude. Zaharrena Iruñekoak da; 1860an egin zituen Tadeo Amorenak gaur egun oraindik ikusi ditzakegun erraldoiak. Baina badira berriagoak.

«Urtero ez dira konpartsa berriak sortzen, baina urtero sei bat erraldoi berri ateratzen dituzte», erran du Unai Lakok. Agoizko Erraldoien Konpartsa kide honek danbo-

rra jotzen du, 18 urte ditu, eta erraldoien zale porrokatua da. «Aurtien Iruñeko Alde Zaharreko bi erraldoi berri inauguratu dituzte; uste dut Uharte Arakilen iraillean beste hainbeste egin behar dutela; eta oraintxe jakin dut Ezkarozen konpartsa badutela. Bestalde, iaz, Carcarren erraldoiak erosi zituzten. Ordura arte, kanpoko konpartsak gonbidatzen zituzten. Baina zaletu egin ziren, eta beren erraldoiak izatea erabaki zuten. Horrek erakusten du Nafarroan erraldoien zaletasunak goraka segitzen duela».

Lakoren aburuz, erraldoiek garrantzi handia dute herrietako jaietan. «Agoitzen goizean hutsune handia betetzen dute», aipatu du. «Goizetan, egun batean badituzu puzgarriak, beste batean jota batzuk; baina erraldoiak kenduz gero, maingu geldituko liriteke jaiak».

Erregeak nagusi

Nafarroako konpartsek lau erraldoi dituzte batez beste. Erriberako konpartsa gehienek bi erraldoi besterik ez dituzte, Zaragozako Aragonesa de Fiestas enpresak egindako errege katolikoek bikotea. Erregeak dira nagusi Nafarroako konpartsetan. Konparazio batera, Azagran, errege katolikoek bikoteaz landara, bi errege mairu dituzte;

eta Lesakan, izenik gabeko bi errege kristau dituzte. Baina badira bestelako gaiak ere erraldoien artean: Artaxoan, adibidez, herriko bi pertsonaia ezagunen erraldoiak dituzte, Saturnino Lasterra eta Martina Goikoetxea. Herri mitologiatik eta kulturatik hartutako pertsonaia badira —Sorgina eta Momotxorro Altsasun, eta Bardenero Zarrakaztelun—, baina baita urrunetik ekarritakoak ere —Marco Antonio eta Cleopatra—.

Badirudi erraldoien zaletasuna gorantz doala; gainera, gero eta erraldoien elkarretaratze gehiago egiten dira, Tuteran, Altsasu, Olazti, Uharte eta Agoizkoaren bidetik. Altsasukoa aurtien ez dute eginen, konpartsa desagertzearekin baita, bost kide besterik ez ditu eta. Baina besteak sasoiko daude.

Elkarte bat osatu nahi dute

Konpartsen arteko elkarlana koordinatzeko edo, iaz Erraldoien Lagunak Nazioarteko Elkartearen Nafarroako atala sortzeko urratsak egiten hasi ziren Agoizko, Altsasuko eta Olaztikoko konpartsak, besteak beste. Elkarrekin horrek Katalunian du sorburua. Katalunian zaletasun handia baitute, Nafarroan baino handiagoa beharbada. Erraldoien inguruan hitz egitean, Katalu-

nia erreferentzia puntua da. Han, bost mila bat erraldoi izanen dituzte. «Baina Katalunian erraldoiak ulertzeko modua eta gurea oso ezberdinak dira», zehaztu du Lakok. «Dantzak serioagoak dira, geldoagoak, arranditsuagoak. Musika ez da horren zarratsua. Katalunian kalejirak egiten dituzte erraldoiak harro erakusteko. Hemen ez bezala, Kataluniako jendeak pasabidea egiten die erraldoiei, eta ez da kalejira barruan sartzen».

Arestian erran bezala, iaz Nafarroako elkarte bat sortzeko ahalegina egin zuten. Baina atarian gelditu ziren. «Izan ere, Katalunian arazoak dituzte Nazioarteko Elkartearen eta Kataluniako Erraldoien Elkartearen artean», azaldu du Unai Lakok. «Guk auzi horretan ez dugu sartu nahi. Guk bilatzen dugu Nafarroan geure elkarte sortzea, eta Nazioarteko Elkarte horretan sartzea lehenbiziko urrats bat zen».

Erakusketa eta liburua

Orain arte, Agoizko konpartsak antolatutako duen erakusketa bakarrik egon dira Nafarroako konpartsa guziak elkarturik. *Erraldoien Mundua* izeneko erakusketa hori, Nafarroako, Euskal Herriko, Kataluniako eta munduko erraldoien inguruko, Unai Lakok urteetan bildutako datuekin eta argazkiekin osatu zuten. Erakusketa Agoitzen, Vianan, Uhartean, Iruñean, Altsasun eta Pasaian izan da, besteak beste. Laster, Garesera eramanez dute. Eta gero, Kataluniara.

Lako erraldoien zale amorratua da. «Nik betidanik izan dut zaletasun hau», dio. «Egunkarietako artikuluak biltzen nituen; Agoizko konpartsaekin elkarretaratzeetara joaten ginenean, datuak bildu eta argazkiak egiten nituen. Eta material asko dituz nuen, bururatu zitzaizkien erakusketa bat egin. Eskutitzak bidali genituen Nafarroako konpartsa guzietara. Eta, gutika-gutika, informazio guzia osatu genuen».

Horrenbeste informazio bildu zuten, liburua egitea otu zitzaizkien. «Asmoa genuen liburua egiteko hainbat atalekin: erraldoien historia, gaita, eraikitzaileak eta fitxak konpartsa bakoitzarekin. Baina, azkenean, uste dut halako bilduma bat osatuko dugula konpartsen fitxekin. Beraz, informazioa ahalik eta gaurkotuena izanen da. Orain, dirua jarriko lukeen aurrezki kutxa baten bila gabiltza».

→ Asier Azpillikueta



● JACQUEL MAITTEOLA / ARGAZKI PESS

«Miraririk ezean, aurtengo jaietan ez da erraldoirik izanen»

SANTIAGO MORENO 39 URTEKO ALTSASUARRAK HOGEI URTE EMAN ditu herriko erraldoien barnean. Orain, penatuta ikusten du nola Altsasuko erraldoiak eramateko nahiko jende ez dagoen.

■ Nola iritsi zarete egoera honetara?

Araza ez da orainoa. Duela hiru urte edo sortu zen. Ahal dugun guzia egin dugu jendea aurkitzeko, baina badirudi Altsasun inork ez duela honetan sartu nahi. Konpartsak hogeitau urte egin ditu eta garairik onenean sei erraldoi eta hamazortzi eramaile genituen; orain, ordea, bi erraldoi eta bost eramaile ditugu. Horrekin zaila da eustea. Izan ere, bost horietatik hiruk Altsasutik kanpo lan egiten dugu eta herriko jaietan bi lagunek bakarrik ezin dituzte bi erraldoiak eraman. Makina bat dei egin dugu, eta denboraldi hasieran *Erraldoien mundua* erakusketa paratu genuen jendea animatzeko, baina inor ez da etorri. Horrela ezin dugu segitu. Ni prest nago konpartsan segitzeko, sartu berriek erraldoiak eramaten ikasi arte. Baina miraria beharko litzateke konpartsa ez desagertzeko.

■ Zenbat lagun beharko liriteke aitzina segitzeko?

Irauteko, beste bost lagun edo. Baina konpartsa ona osatzeko, jende gehiago behar da, beti ona baita erresebakon jendea izatea, kontzentrazioetara joan ahal izateko. Gure asmoa zen konpartsa handitzea. Altsasuko inauteriko bi pertsona ditugu, Sorgina eta Momotxorro, eta beste biak egin nahi genituen. Tramposo eta Maskarita. Baina dena ezerezan geldituko da.

■ Ez zen diru arazoa, beraz.

Ez, ez. Edozein kultur talde ez dago kontent jasotzen duen diruarekin, denek gehiago nahi baitugu. Baina Udak honek ahal duen guzia kolaboratu du. Tirabirak izan ditugu, bai, baina diruak ez du zer ikustekorik arazo honekin. Jendea falta da. Besterik ez. Orain erraldoiak eramateko jendea falta da, baina beste kultur taldeekin ere gauza bera gerta daiteke. Eta pena da.

■ Hortaz, hainbeste urteren buruan, erraldoiak ez dira Altsasuko bestetan aterako.

Ez. Pena da, hainbeste urte eta gero, hainbeste leku bisitatu eta gero, Altsasuko herria leku askotan ezagutarazi eta gero. Oso triste gaude, gure barnean zer edo zer hilen baltzaigu bezala. Nolakoak izanen dira Altsasuko jaiak erraldoirik gabe? Oso tristea izanen da dantzarien aurretik erraldoiak ez ikustea. Eta jaietan egiten genuen erraldoien kontzentrazioa ere ez da egonen; hamazazpigarrena izanen litzateke. Ea nola igarotzen dugun irailaren 13a.

Erraldoiak herrietako jaietako gauza andiena dira; garaieran eta —kasik— garrantzian. Plazan edota karriketaz gertatzen diren bakoitzean, jausika eta artazika, ttikienen harridura sortu dute. Iruñekoak dira Nafarroako ezagunenak, baita zaharrenak ere. Baez dira bakarrak, Nafarroa erraldoiez josirik baitago. Iaz konpartsa daude.

Erraldoi lurra

Nafarroan ia ehun konpartsa goen arren, ez dago guziak batuko dituen elkarterik

IRUÑEA



● AGOIZKO ERRALDOIEN KONPARTSA

ARTAXOA



LESAKA



AZAGRA



AGOITZ




Kresala


Marea gora. Zarauzko hondartzako gure toldotxoaren pean nago. Lasai. Ez nabil amnesia jota —koinatak dio horren lodi egonda ez dakiela nola pentsa dezakedan inork usteko duenik amnesia naizenik. Ufa—. Badakit joan den astean modu berean hasi nuela zutabea. Kontua da koinatak jakin duela honako txoko honetan behin besterik ez dudala aipatu Zarauzko hondartzan toldotxo daukagula, eta konbentzitu nauela oporretan gauden bitartean osiralero zutabea horrela has dezadan.

Marea behehera. Jose Maria Aznar balitz bezala, eta Madrilgo Diputatuen Kongresuan nazioaren egoerari buruzko eztabaidan *España!* izeneko herri honen egoera ezin hobea azaltzen ariko balitz bezala, argudio birringarri hiru erabili ditu. Lehena, edonor joaten dela oporretan Zarautzera, baina inork gutxi daukala bere toldotxo Zarauzko hondartzan. Bigarrena, aipamena zutabe hasieran egiten ez badut, inork gutxi jakine duela toldotxo daukagula, inork gutxi irakurtzen omen baititu nire zutabeak amaierara arte. Hirugarrena, toldotxo berea —koinatarena— denez, aipamena hasieran egiten ez badut, opor hauetan itzala edo eta arropa aldaketa egiteko tokia behar dudan baikoitzean gurutze-gorriaren etxolara joan beharko dudala.

Marea gora. Orain arte izan dugun eguraldi zakarraren poderioz, aurten toldotxo birritan besterik ez dugunez erabili, hasieran koinata pikutara bidaltzekotan izan naiz, baina gero **Peio Za-**



● JOSU SANTESTEBAN
Jose Maria Aznar, Espainiako presidentea.



● EGUNKARIA
Peio Zabala iragarpen baikorra egin du abuztuko lehen hamabostaldirako.

balaekin eta abuztuko lehen hamabostaldirako egin dituen iragarpen baikorrek oroitu naiz. Gero bururatu zait kontra egitea, eta esatea toldotxo erabiltzen uzten ez badit, bere seme-alabei ez dizkiedala palak eta gomazko pilota utziko, baina jabetu naiz orduan nik neuk jokatu beharko nukeela palekin, pilotarekin eta, batez ere, nire seme-

alabekin. Hartara, azkenean amore eman dut: *pax avant*.

Marea behehera. Irakurle baldarrak pentsa lezake aste honetako zutabe hutsala dela. Baina irakurle trebeak saiatu behar du agerikoaz haratago bigarren, hirugarren, laugarren irakurketegiten. Aitatasuna, giza-harremanak,

agintea, jabetza pribatua, munduko ordena berria... Irakurle benetakoarentzat, idazkia gai horien guztien inguruko metaforaz, hausnarketaz, iradokizunez josita dago. Eta nik irakurle benetakoarentzat idazten dut, hemendik, Zarauzko gure toldotxoaren petik. Irakurleak galdetu al dio bere buruari izenburuaz, *kresal*/horretaz?



panpilonia zirkus

Aita santuaren irudia

«Zenbat hildako izan dira aurtengo Sanferminetan?». Aste honetan berean galdera hori egin diote Ernestori, eta, ziur dago uda bukatu baino lehen, abuztuko edo iraileko egun batez, horixe bera edo bertze hau ere entzuten duela: «Zezenak ze ordutan aterako dira?». Turistak San Fermin hotsek erakarririk etortzen baitira hirira, ez bakarrik uztailearen 6tik 14ra, aurretik eta ondotik Iruñeratzaren diren gehienak ere San Ferminak dauzkaten gogoan eta zezenek egin omen dituzten sarraskiak ere bai.

Turistak goiti eta beheiti ibiltzen dira Estafetan: «Karrika hau Estafeta da? Zezenak norantz doaz, harantz edo honantz?». Eta argazkia ateratzen dute Estafeta kalea kartelaren azpian. Baita Casa Casla-

ren gaineko balkoitik zintzilik dauden txorizo maribistakoen azpian ere.

Duela 30 urte baino aunitzez ere gehiago etortzen dira. Lehenago bizpahiru souvenir denda zegoen. Orain aldiz, pentsa zenbat dagoen Estafeta, Mercaderes eta Curia karriketan. Dena dela, zaharrena Gazteluko plazakoa da. Turistak ugaltzearekin batera, gainera, salgai motak ere izugarri ugari dira. Lehenago, kanpoko jendeak sevillana panpina erosten baitzuen eta, sevillanekin batera, dendentan ere izaten ziren hiriak munduari eta dentistei eginiko ekarpen goxoa, hots, *7 de julio* eta *Dos cafeteras* pastillak, kafez eta esnez eginiko goxokiak, alegia. Izan ere, halako moldez itsasten zaizkio haginari, non behin baino gehiagotan, goxo-

● GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Enrike Diez de Ultzurrun



Estafetan ugari dira oroigarri dendak.

kia hagnetik askatzeko ahaleginaren emaitza izan baita hagina bera erroitik atera izana.

Gaur egun, oraindik ere bada halakorik denda horietan, eta, hantxe dirau betiko salgaiak, zahatoak, alegia. Ernestok pila saltzen ditu urtero Estafetako dendan: «Behin batean, holandar batek lau litroko zahatoa eskatu, nik eman, baina ordaindu

Lanbide entretenigarria izaten da gainerakoan. Australiarrak sartzen dira Espainiako banderaz galdezka, ikurrina seinatuz, edota negu gorrian, bafen bat galtza motzetan, mauka hutsik: «Non ote dago Espainiako eguzkia?» eta maiz ere egin dioten galdera San Fermin irudi mitradunari begiratuta: «Zergatik duzue Aita Santuaren irudia?».

547.ean, agur

la hamaika urteren buruan, gaur kaleratu du EGUNKARIAk azken Nafarkaria

Nafarroako Gobernuak hedabideetan euskara sustatzeko banatzen hasi zen diru laguntzen arrimura sortu zen Nafarkaria 1991ko abenduaren 6an, EGUNKARIA lehenbizikoz atera eta urtebetera. Bederatzi urtez jaso zuen diru laguntza hori. Are gehiago, bederatzi urte horietan, diru kopuru handiena jasotzen zuen hedabidea izan zen EGUNKARIA, argitaratzen zuen gehigarriari zegokiona, hain zuzen ere: Nafarroan eginitako euskarazko asteakaria; Nafarroako kazetari, zutabegile, argazkilaria, irudigile eta kolaboratzaileek egina; zortzi orrialdetan, Nafarroako informazioa biltzen zuena.

Nonbait, Nafarkaria ez zen «nafarregia», eta 2001eko diru laguntza ukatu zion UPNko Gobernuak. «Euskarazko prentsa» atala deialditik kendu, eta Nafarkaria egiteko zazpi milioi pezetarik gabe utzi zuen EGUNKARIA. Urte eta erdi iraun du Nafarkaria, baina zama handiegia zen laguntzarik gabe eusteko.




Heldu den ostiralean ez da Nafarkariarik izanen. Eta ez, irailean ere ez da berriz itzuliko. Nafarkariak betiereko atsedena hartu baitu. Hil egin da; egunkari batek ateratzen duen gehigarria hiltzerik duela erran badaiteke, behintzat.



Hasieratik, Nafarroako informazio hurbila eta zuzena ematea izan zuen helburu Nafarkariak, eta helburu hori beteta zendu da. Has tapenetan, EGUNKARIAko gehigarri bakarra zenez, kontu eta auzi «handien» berri eman zuen Nafarkariak. Gerroago, ordea, eta EGUNKARIA hazi ahala, Nafarkariko gaiak «ttikitzen» joan ziren. Eta, azkenaldian, —hitzok idatzi dituenak zin egiten du—, gero eta zailagoa zen EGUNKARIAren eguneroko orrialdeetan edota gehigarrietan luze eta zabal lantzen ez ziren gaiak aurkitzea. Alde horretatik, Nafarkariak berea egin du hamarkada luze honetan. Beste norbaitek edo zerbaitek bete beharko du honek utzitzako hutsunea.

Nafarkaria koadrilla kalifikatu baten txokoa izan da, zortzi orrialdeko oparia, hasiberrirentzako eskola polita. Bada, Nafarroako euskal idazle, iruzkigile, kazetari eta hitz-juntatzaileek beste tranpolin bat bilatu beharko dute. Honek egin baitu. Agur, eta ikusi arte.

Asier Azpilikueta



Azken Nafarkaria

Martxelo Otamendi / EGUNKARIAko Zuzendaria

Eskutan duzun hau da, irakurle, EUSKALDUNON EGUNKARIAk argitaratuko duen azken Nafarkaria. Nafarroako Gobernuak euskararekin zer ikusia duen guztiaren aurka daraman gurutzada euskarafobikoaren barruan, diru laguntza ukatu zion 2001ean Nafarkariari; eta 2002an, deialdia ezagutarazi ez den arren, itzaropenik ez dago diru laguntzen inguruan. Nafarkaria 2001eko urtariletik gaur bitartean, argitaratzeak sortutako gastuak EGUNKARIAk hartu ditu bere gain, diru-iturri alternatiboren bat topatuko genuen esperantzarekin; baina ez da horrela gertatu. Nafarroako Gobernuaren erabakiaren berri jakinda, EGUNKARIA Udaltzitatearekin (EAJ-EA) jarri zen harremanetan, eta, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren berri emanda, diru laguntza eskatu zion Nafarkaria argitaratzen segitu ahal izateko. Urtebete baino gehiago iraganda, EGUNKARIAk, nahiz saiatu den, ez du erantzunik jaso Udaltzitatearekin.

Urteetako lana

Ibilbide luzea egin du Nafarkariak gaur bitartean. Urte horietan guztietan Nafarroan gertatutakoaren berri eman du, astean behingo zortzi orriko gehigarri batek eman lezakeen neurrian, noski. Bestela komunikabideetan, ezta gaztelaniazkoetan ere, agertuko ez ziren albiste eta protagonisten lekukotasunak jasotzeko ahaleginean jardun du. Bai herri txikietako albisteak, baita herri handi eta hirietakoak ere.

Baina albisteak jorratzeko komunikabide izateaz gain, Nafarkaria kazetariaren, kolaboratzaileen, zutabegileen eta idazleen trebakua ere izan da. Gehigarri honetan idatzi dute Nafarroak azken urteotan euskal letratu eskaini dizkien ezagunenek. Batzuk ezagunak ziren Nafarkarian idatzi aurretik, beste batzuk, berriz, Nafarkaria izan dute lehen agertoki publiko eta masiboa.

Aurrera begira

Baina Nafarkaria argitaratzeari uzteak ez dio inori pentsarazi behar EGUNKARIAk etsi egin duela Nafarroan egin beharreko lanaz, edo amore eman duela Nafarroako Gobernuaren erabakiaren aurrean. Handia da Nafarroan euskara gizarteratzeko eta komunikazio tresna bihurtzeko egin beharreko lana, Euskal Herri osoan den bezala. EGUNKARIAk ez du atzera egingo ahalegin horretan, eta Nafarkaria argitaratzeak lekarkeen kostua Nafarroan inbertitzen segituko du; EGUNKARIA Nafarroan gehiago saltzeko ahaleginean, hain zuzen.

Nafarkaria argitaratzen dugun azken ale honetan bidezkoa da 1991ko abenduan jaio zenetik gaur arte posible egin duten guztiak merezi duten esker ona adieraztea, eta egin duten lan ona ezagutaraztea: argitaratu eta editatzeko ardura izan duten kazetariak, argazkilaria, aldikako kolaboratzaileak, komertzialak, herrietako berriemaileak, zutabegileak eta beste edozein eginbidetan lagundu duten guztiak, baita arretaz segitu duten irakurleak ere. Horiek denak gabe, ezinezkoa zatekeen Nafarkaria ostiralero argitaratzea.

Horiekin denekin nahiko genuke aurrerantzean ere lana egin, Nafarroan euskarak merezi bezalako komunikabideak eduki ditzan.

Panfletolandian

4

Laburpena:
Gure heroiek
Euskarari erasoka
ari ziren
Datu Maltzur Batzuk
izutu dituzte....



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Udako egunkariak

Egunkariak irakurtzea gogoko dugunontzat Sanferminak amaitu eta hurrengo kurtsoa hasi arteko tartea urteko txarrena izaten da. Izan ere, nahiko potoloak zirenek bikini janzteko moduko tipoa erakusten digute, eta sobran deus ez zutenak anorexiak jota kioskoratzen hasi dira.

Jakina denez, Sanjuanetatik goiti festek lekuko hartzen diete politikoen prentsaurrekoei. Irakurlearen ikuspuntutik, neguko eta udako informazio iturri nagusiek, diferenteak izanagatik, badute uste baino antz handiagoa. Adibide bat: Sanferminetako azken eguneko erraldoin agurra. Nolako ia zen ekitaldia? Hunkigarria. Eman dezagun Eusko Legebiltzarrak egun berean autogobernuari buruzko agiria onartu duela. Zer dio UPNk? Nafarren nortasunaren aurkako eraso onartezina dela. Bai, lagunok, politikan nola festan ia dena aurreikus daiteke. Gure zori-xarrerako seguru asko, batez ere politikan. Kontua da Eusko Legebiltzarrak onarturiko agiriari esker UPNk zein PSNk kazetariekin solasteko aukera izan dutela eta hari horri tiraka segiko dute, lehorte garaian horrelako gaiak eskertze-koak baitira, bai politikoentzat eta baita kazetari-entzatzat ere.

Ikastolek ere udako gai polita oparitu diete lurraldeko komunikabideei: Operación Triunfo kantari bat Tuterara eraman omen zuten. Cordovillakoak ere orri osoa eman zion emanaldia. Pozgarria da. Gora Fergo. Zorionez, abuztuaren hasierarekin batera horrelako emanaldi eta festak ugartu egingen dira. ETBkoak, esate baterako, Rociñoren maitasun-kontuez hitz egiteaz gain Faltzesko entzierroa emanen dute goiz, arratsalde eta gauetz. Entzierroa erran dut, eta ez da egia: entzierro hasi aurreko giroa, entzierroa bera eta ondorengoa. Bi orduko emanaldi hunkigarri bezain zirraragarria. Pulitzer saria ere merezi du ahotsa jartzera behartzen duten kazetariak. *Eta horrela bizitzen gera, sortuz ta sortuz gure aukera, atsedetik hartu gabe:* Chenoaren kontzertutik, Faltzesko entzierrora eta hortik Miguel Sanzen azterketa sakonetara.

Eta bat-batean, eguraldiari kasu eginez gero oraindik hasia ez den uda bukatu dela konturatu gara. Herrietako festak amaiturik, politikak eta kazetariak lanean hasiko dira eta horrek ondorio nabarmena izanen du: egunkariak neguko tipo potoloagoa berreskuratuko dute. Eskuetan duzun hau, ordea, ortziralean ohi baino argalago kioskoratuko da, gaurkoa azken NAFARKARIA delako. Iragarritako heriotz baten kronika. Nire aldetik, azken kronika. Laster arte.

gure aukerak

MUSIKA

- **Aurizberri:** Erramun Martikorenaren kantaldia izanen da gaur, 23:00etan.
- **Lizaso:** Ataitz taldeak txistu kontzertua eskainiko du bihar, 12:30etan eta 18:00etan, Orgiko hariztian.
- **Zangoza:** Limerick, Irlandako folk musika jotzen duen taldea, kultur etxean izanen da bihar, 22:30etan.
- **Gares:** Pablo Liquidok Naixel-Eunea terrazan kantatuko du igande honetan, hilaren 28an, 21:30etan.

ANTZERKIA

- **Saldias:** Sambhu Teatro taldeak *Errekrea* antzezlan taularatu-ko du abuztuaren 3an, larunbat-arekin, 22:00etan, herriko frontoian.

LEHIAKETA

- **Atarrabia:** Pedro de Atarrabia gaztelaniako eta euskarazko kontakizun laburren sariketarako lanak kultur etxean aurkezteko epea irailaren 27an bukatuko da. Gaia librea da eta idazlanek 20.000 karaktere izanen dituzte gehienez. Saria 1.700 eurokoa izanen da.

ERAKUSKETAK

- **Arizkun:** Xabier Soubelet margolariaren lanak uztailean eta abuztuaren izanen dira Sasternea etxean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- **Elizondo:** Jesus Montesen margolanak Arizkunenea kultur etxean izanen dira iraila arte.
- **Oieregi:** Xabier Santxotenaren eskulturak Bertizko jauregian izanen dira iraila arte.
- **Erriberri:** Javier Iriarteren eskulturen erakusketa errege jauregian izanen dute abuztuaren 29a arte.

- **Viana:** Alicia Irigoien artistaren margolanak kultur etxean izanen dira iraila arte.

IKASTAROAK

- **Erriberri:** Ardo dastaketa ikastaroa egingen dute gaur, 20:00etan, Ardoaren Kofradian. Plaza erreserbatzeko, deitu 948-210347 telefonora.
- **Atarrabia:** Gaztelekuaren hena, sabel dantza, txalaparta eta hip-hop ikastaroetan izena emateko epea hilaren 31n itxiko dute. Izena Gaztelekuan eman behar

da, 18:00etatik 22:00etara. Telefonoa: 948-355970.

- **Iruñea:** Nafarroako Antzerki eskolak zuzendaritza, clown, interpretazio eta biomekanika ikastaroak antolatuko ditu abuztuaren bigarren hamabostaldirako. Izena abuztuaren 1etik 14ra eman behar da. Informazio gehiago 948-210360 telefonon.

BESTELAKOAK

- **Zangoza:** Abuztuaren 9an eta 16an egingen dituzten Erdi Aro-

ko afarietan izena emateko, kultur etxean egin behar dira erreserbak, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 15:00etara. telefonoa: 948-870251.

- **Lakuntza:** 01-02 ikasturtean euskara ikasi duten ikasleentzako eta Sakanan euskarazko klaseak eman dituzten euskaltegi-entzako diru laguntzak banatuko ditu Sakanako Mankomunitateak. Eskaerak iraila akitu baino lehen aurkeztu behar dira Euskara Zerbitzuan (Uriz, 38; 31830 Lakuntza). Argibideak 948-464840 telefonon.

Asteko erakusketa



● EGUNKARIA

Jesus Montes

Non: Arizkunenea kultur etxean, Elizondon.

Noiz: Uztailearen 25etik irailaren 1era.

Ordutegia: 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.